- Barne-komunikazioa, kanpo-komunikazioa eta publizitatea. Hizkuntzaren berdintasunezko erabilerari buruz ezarritako araudia betetzen dela zaintzea.

El Plan de Igualdad continuará avanzando en las siguientes áreas de actuación:

- Selección. Aplicación y seguimiento de los criterios actualmente implantados y definidos en coordinación con las Instituciones, con objeto de evitar las discriminaciones en los procesos de selección.
- Promoción. Aplicación y seguimiento de los criterios actualmente implantados y definidos en coordinación con las Instituciones, que permitan procesos de promoción interna no discriminatorios.
- Formación.
- Condiciones de trabajo.
- Comunicación interna, externa y publicidad. Vigilancia del cumplimiento de la normativa implantada relativa al Uso igualitario del lenguaje.
- Protocolo de actuación ante el acoso en el trabajo.

- Laneko jazarpen-egoeratan jarduteko protokoloa.
- Lanean jazarpen psikologikoa, sexuala edo sexuak eragindakoaYY gertatuz gero, "aholkularitza konfidentziala" sustatzea defentsa-mekanismo gisa.
- Lan-harremanak.
- Lana eta familia uztartzea.
- Sentsibilizazioa eta kultura-aldaketa.
- Beste erakundeen trakzioa izatea.
- Enpresa Batzordeari proposamena aurkeztea, Berdintasun Legean ezarritakoaren arabera onartzeko.

3.7.3. Desgaitasunak dituzten pertsonen irisgarritasun unibertsala, lana eta integrazioa sustatzeko neurriak

Metro Bilbao SAk langileak hautatzeko garaian, kontuan hartu beharreko baldintza orokor batzuk ditu finkatuta. Horien artean, hauek dira nabarmenenak:

- Desgaitasunak edo minusbaliotasunak dituzten langileen hautagaitzen segimendu berezia egitea.
- Prozesuan zehar, hautagai guztiek aukera berdinak eta diskriminaziorik ez dutela bermatzeko konpromisoa.

Metro Bilbao SAk desgaitasunak dituzten 9 langile ditu (ikus "desgaitasunak dituzten langileak").

3.7.4. Jazarpen sexualaren eta sexuarengatik gerta daitekeenaren kontrako protokoloa

Metro Bilbaoren xedea da Bizkaiko bidaiarien garraio-sistemaren muina izatea, eta hiru oinarri ditu ("Zerbitzuaren kalitatea", "Kudeaketa eraginkorra eta gardena" eta "Pertsonekiko konpromisoa"), eta enpresari jarduera-arlo guztietan informazioa eman eta hura inspiratu behar dute. Oinarrietako bat "Pertsonekiko konpromisoa" da.

- Promover la "asesoría confidencial" como mecanismo de defensa en supuestos de acoso psicológico, sexual y por razón de sexo en el trabajo.
- Relaciones laborales.
- Conciliación de la vida laboral y familiar.
- Sensibilización y cambio cultural.
- Tracción a otras Organizaciones.
- Presentación de la propuesta resultante al Comité de Empresa para su aprobación conforme a lo dispuesto en la Ley de Igualdad.

3.7.3. Medidas adoptadas para promover el empleo y la integración y accesibilidad universal de las personas con discapacidad

Metro Bilbao S.A. a la hora de realizar la selección de personal tiene establecidos una serie de condiciones generales que se deberán tener en cuenta. De entre estas condiciones cabe destacar:

- La realización de un especial seguimiento y dedicación sobre las posibles candidaturas de personal discapacitado o con minusvalías.
- El compromiso de garantízar la igualdad de oportunidades y no discriminación para toda persona candidata durante el proceso.

Metro Bilbao S.A. cuenta en su plantilla con nueve personas con discapacidad (ver punto 'empleados con discapacidad).

3.7.4. Protocolos contra el acoso sexual y por razón de sexo

La misión de Metro Bilbao de convertirse en un eje vertebrador del sistema de transporte de viajeros de Bizkaia descansa sobre tres pilares básicos ("Calidad del servicio", "Gestión eficaz y transparente" y "Compromiso con las personas") que deben informar e inspirar la actuación de la empresa en todos sus ámbitos. Uno de los tres pilares básicos es el denominado "Compromiso con las personas.

Konpromiso hori kanpo-ikuspegitik aztertzeaz gain, hau da, bezeroekiko konpromiso gisa ikusteaz gain, barne-ikuspegitik ere aztertu behar da, Metro Bilbaok bere langileekiko duen konpromiso gisa (azpikontratatutako langileak, ABLE-etako langileak, praktikak egiten ari diren edo bekarekin dauden langileak), eta guztiei bermatu behar die berdintasunean oinarritutako garapen profesionala. Horregatik, indarrean dauden lege-betebeharrei erantzunez eta gaian aitzindaria izanik, laneko jazarpen gisa har daitezkeen jokabide guztiak prebenitzeko eta erauzteko protokoloa sortu du.

Este compromiso debe ser analizado no sólo desde la perspectiva externa, como un compromiso con la clientela, sino también desde una perspectiva interna como un compromiso de Metro Bilbao con su plantilla (incluido el personal subcontratado, ETT, y personal en prácticas o becarios), garantizándoles un desenvolvimiento profesional en un ambiente de igualdad. Es por ello que Metro Bilbao, en cumplimiento de las obligaciones legales existentes y como empresa pionera en la materia, ha creado un protocolo para prevenir y erradicar toda clase de conductas constitutivas de cualquier tipo de acoso en el ámbito laboral.

Protokolo horren helburua da aldi berean betetzea, alde batetik, Langileen Estatutuko 19. artikuluan aurreikusitako langileak nahitaez babestu beharra eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legearen 14. artikulua; eta, bestetik, lanean sexu-jazarpena eta sexuarengatik gerta daitekeenaYY prebenitzeko eta erauzteko 3/2007 Lege organikoaren 48. artikuluak agintzen duena.YY

Este protocolo tiene por objeto dar cumplimiento de manera conjunta por un lado a la obligación de protección de los trabajadores/as prevista en el artículo 19 del Estatuto de los Trabajadores y en el artículo 14 de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales, y por otro al mandato del artículo 48 de la Ley orgánica 3/2007 de establecer medidas para prevenir y erradicar el acoso sexual y por razón de sexo en el trabajo.

Ondorioz, eta aurretik aipatutako helburuekin, lanean jazarpen psikologikoa, sexuala eta sexuarengatik gerta daitekeenaYY prebenitzeko, atzemateko eta konpontzeko prozedura hau ezarri da, LANEk lanaren printzipioei eta eskubideei buruz egindako adierazpenarekin eta Europako Parlamentuaren ebazpenarekin (2001/2339 (INI)) bat eginez.

En consecuencia, con las finalidades anteriormente expuestas, se establece el presente procedimiento para la prevención, detección y solución del acoso psicológico, sexual y por razón de sexo en el trabajo con las debidas garantías, todo ello de conformidad con la declaración de la OIT relativa a los principios y derechos en el trabajo y la resolución del Parlamento Europeo (2001/2339 (INI)).

3.7.5. Diskriminazio-mota guztiaren kontrako politika, eta, dagokionean, aniztasunaren kudeaketarena

3.7.5. Política contra todo tipo de discriminación y, en su caso, de gestión de la diversidad

Metro Bilbaok ez diskriminatzeko printzipioa errespetatzea bermatzen du, eta horri dagokion araudia ezarri du Barne Araudian.

Metro Bilbao garantiza el respeto al principio de no discriminación estableciendo el reglamento pertinente en su Normativa Interna.

Enpresako langileek salatzen duten edozein gai Metro Bilbaok horretarako ezarri dituen prozeduren bidez jaso, aztertu eta ebatzi behar da: Jazarpen Protokoloa aktibatzea edo Compliance Officer-ari zuzenduriko salaketa.

Cualquier hecho denunciable por parte del personal de la empresa deberá ser recibido, analizado y resuelto mediante los diversos procedimientos establecidos al efecto por Metro Bilbao: activación del Protocolo de Acoso o

denuncia dirigida al Compliance Officer.

Bereziki kontuan hartuko dira langileen duintasunaren kontra doazen jokabideak, genero, arraza, erlijio, sexu-orientazio, desgaitasun edo adinagatik diskriminatzea eragin dezaketenak, edo pertsonen banakako eskubideak errespetatzen ez dituzten eta beldurtzeko inguruneak sortzen dituztenak.

Se tendrán en especial consideración las conductas que atenten contra la dignidad de los empleados y empleadas, supongan discriminación por razones de género, raza, religión, orientación sexual, discapacidad e incluso edad, o generen entornos intimidatorios que traspasen los derechos individuales de las personas.

2019 urtean ez da salaketarik jaso eta ez da diskriminazio-kasurik egon.

No se han recibido denuncias ni se ha tenido conocimiento de situaciones de discriminación durante el año 2019.

4. Giza eskubideak

4. Derechos humanos

4.1. Kudeaketa-ikuspegia

4.1. Enfoque de Gestión

Politikak eta konpromisoak

2019an, araudia betetzeko proiektuaren ezarpena sendotu dugu Metro Bilbaon. Proiektu horren oinarrian, Metro Bilbaok lehenagotik bere gain hartuta zeuzkan konpromisoak ageri dira, hala nola Jokabide Kode Etikoa, Kudeaketa Etiko Arduratsurako Eskuliburua, Jazarpenaren kontrako Protokoloa eta abar. Hori hala, Metro Bilbaok determinazio are handiagoz lagundu du horiek guztiak sendotzen, esandako dokumentu horietan ageri diren aginduak eta printzipioak indar handiagoz jantziz eta zehaztuz.

Políticas y compromisos

Durante el año 2019 se ha consolidado la implantación del proyecto de Cumplimiento Normativo en Metro Bilbao. Este proyecto, si bien se ha cimentado sobre compromisos ya adquiridos previamente por Metro Bilbao tales como el Código Ético de Conducta, Manual de Gestión Ética Responsable, Protocolo de acoso, etc, ha contribuido a afianzar aún más la determinación de Metro Bilbao en esta área, concretando y dotando de mayor fuerza vinculante los mandatos y principios obrantes en los mencionados documentos.

Era berean, esandako proiektuaren haritik, hainbat enpresa-prozedura sortu, aldatu eta egokitu dira. Haiek guztiak, azken buruan, legezkotasuna betetzen dela bermatzera daude bideratuta, bai eta Metro Bilbaoren agintaritzaren pean dauden langile guztien jokabide etikoa behatzera eta zaintzera ere.

Asimismo, con motivo del citaado proyecto se ha acometido la creación, modificaciones y adaptaciones de varios procedimientos de empresa encaminados todos ellos, en última instancia, a garantizar el cumplimiento de la legalidad y la observancia de un comportamiento ético por parte de todo el personal sometido a la autoridad de Metro Bilbao.

Erantzukizunak eta bitartekoak

2019an, araudia betetzearekin lotutako hainbat alor ikuskatu eta berrikusi dira, eta, egiteko horretarako, aipatutako gai horietan adituak diren hirugarrenen babesa eta txostenak eskatu dira.

Responsabilidades y recursos

Durante el año 2019 se ha acometido una auditoría y revisión de varias áreas de cumplimiento normativo, habiéndose solicitado para ello apoyo e informes a terceros especialistas en la materia.

Arriskuak
Metro Bilbaon arauak betetzeko ezarri den programaren (Corporate compliance) barruan, arriskuen mapa prestatu da Metro Bilbaok zer delitu egiteko arriskuak identifikatzeko. Osatu den arriskuen mapak epigrafe guztietan arrisku txikia edo oso urruna jasotzen duen arren, hona hemen identifikatutako zenbait arrisku:

Riesgos
Dentro del programa de cumplimiento normativo (Corporate compliance) implantado en Metro Bilbao, se ha elaborado un mapa de riesgos dirigido a identificar los riesgos existentes de comisión delictiva por parte de Metro Bilbao. Si bien el mapa de riesgos elaborado arroja un resultado de riesgo bajo o remoto en casi todos sus epígrafes, a continuación destacamos varios de los riesgos identificados :

Delitu motak

Tipos de delito

Intimitatearen kontrako eta bortxatze informatikoko delitua (Zigor-kodearen 197 artikuluaren bosgarrena, 197 bigarrenarekin eta hirugarrenarekin loturik)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Posta elektroniko pertsonalera sartzea modu irregularrean (adibidez, baimenik gabe), sekretuak aurkitzeko edo intimitatea urratzeko.

Delitos contra la intimidad y allanamiento informático (artículo 197 quinquies, en relación con los artículos 197, 197 bis y 197 ter del Código Penal)
Ejemplo de conducta de riesgo: Acceso de forma irregular (por ejemplo, no autorizado) al correo electrónico personal, para descubrir sus secretos o vulnerar su intimidad .

Maula orokorrak eta bereziak (Zigor-kodearen 251 artikulu bigarrena 248,248 249 250, 251 artikuluekin loturik)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Kontratazioa eta fakturazioa, jakinaren gainean, emandako zerbitzuak baino askoz ere garestiago diren eman gabeko zerbitzuena.

Estafas propias e impropias (artículo 251 bis, en relación con los artículos 248, 249, 250, 251 del Código Penal)
Ejemplo de conducta de riesgo: Contratación y facturación, a sabiendas, de servicios no realizados o por un valor notablemente superior al de los servicios prestados.

Kalte informatikoak, *hacking* (264 artikulu laugarrena, 264, 264 bi eta 264 hiru artikuluekin loturik)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Hornitzaile baten sistema informatikora sartzen den langilea, kaltetu, blokeatu zein bestelako edozein kalte edo galera eragiteko.

Daños informáticos, *hacking* (artículo 264 quater, en relación con los artículos 264, 264 bis y 264 ter)
Ejemplo de conducta de riesgo:Personal que accede al sistema informático de un proveedor, por ejemplo, para dañarlo, bloquearlo o generar cualquier clase de perjuicio

Jabetza intelektualaren eta industrialaren kontrako delituak (Zigor-kodeko 288 artikulua 270-277 arteko artikuluekin loturik)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Beste batzuen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideen urratze kontzienteak eta irabazi

Delitos contra la propiedad intelectual e industrial (art. 288 CP en relación con los arts. 270 a 277 CP)
Ejemplo de conducta de riesgo:Infracciones conscientes y con ánimo de lucro (fines industriales o comerciales) de derechos de propiedad intelectual o industrial de terceros y

asmokoak (helburu industrialak zein komertzialak), haien baimenik gabe.

sin el consentimiento de estos.

Enpresa-sekretuak azaleratu eta ezagutaraztea (Zigor-kodearen 288 artikulua 278-280 artekoekin loturik)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Enpresaren sekretu bat zabaldu, azaleratu edo lagatzea legez zein kontratuz isilpean gordetzera behartuta dagoenak. Gerta liteke, adibidez, enpresa lehiakideetako edo hornitzaile batzuetako zuzendariak edo langileak kontratatzen direnean.

Descubrimiento y revelación de secretos de empresa (arts. 288 en relación con los arts. 278 a 280 CP)
Ejemplo de conducta de riesgo:Difusión, revelación o cesión de un secreto de la empresa, por quien tuviese obligación legal o contractual de guardar reserva. Podría tener lugar, por ejemplo, con motivo de la contratación de directivos o empleados de empresas competidoras o ciertas entidades proveedoras.

Ustelkeria negozioetan (Zigor-kodeko 288 artikulua 286 bi eta 286 laurekin loturik)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Kontratazio pribatuko prozesu batean langileren bat beste enpresa batzeko langileren batekin eroskerian edo ustelkerian aritzea (hainbat modutara) bere enpresaren alde modu bidegabean egin dezan. Edo alderantziz.

Corrupción en los negocios (artículo 288 CP en relación con los arts. 286 bis y 286 quater CP)
Ejemplo de conducta de riesgo:En el marco de un proceso de contratación privada, personal trata de sobornar o corromper (de diversas formas) a personal de otra empresa, para que favorezca indebidamente a su empresa. O viceversa .

Atzerriko funtzionario edo agintari publiko baten ustelkeria nazioarteko transakzio ekonomikoetan (Zigor-kodeko 288 artikulua 286 hiru eta 286 lau artikuluekin loturik)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Atzerriko agintariak edo funtzionarioak eroskeriaz tratatzea (dirua, ondasunak edo mesedeak eskaini edota emateak beste konpainia batzuei ematen dizkieten zerbitzuekin loturiko egintza, jarduera edo ebazpen jakin batzuk lortzeko).

Corrupción de funcionario o autoridad pública extranjera en transacciones económicas internacionales (artículo 288 CP en relación con los arts. 286 ter y 286 quater CP)
Ejemplo de conducta de riesgo:Soborno (ofrecimiento y/o entrega de cualquier clase de cantidades, bienes o favores) a autoridades o personal funcionario extranjero, con el objeto de obtener de los mismos determinados actos, actuaciones o resoluciones en relación con los servicios que presta para otras compañías.

Kapitalak zuritzea (Zigor-kodearen 302.2 artikulu bigarrena 298,299 300, 301 artikuluekin loturik)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Zerbitzuen edo ondasunen izatezko hornitzaileaz bestelako erakunde bati ordaintzea, zerga-paradisuetan kokatutako kontuetara ordaintzea.

Blanqueo de capitales (artículo 302.2 en relación con los artículos 298, 299, 300, 301 del Código Penal)
Ejemplo de conducta de riesgo:Pagos a entidad distinta de la efectiva proveedora de los servicios o bienes, pagos a cuentas ubicadas en paraísos fiscales.

Ogasun publikoaren eta Gizarte-segurantzaren aurkako delituak eta

Delitos contra la Hacienda Pública y la Seguridad Social y fraude de subvenciones (art. 310 bis CP)

diru-laguntzen iruzurra (Zigor-kodeko 310 bi artikulua)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Zerga-iruzurra 120.000 eurotik gorakoa, zergako eta urtaldiko. Zerga-iruzurra Gizarte-segurantzari, 50.000 eurotik gorakoa.

Ejemplo de conducta de riesgo:Fraude fiscal por importe superior a 120.000 euros por impuesto y ejercicio. Fraude a la Seguridad Social por importe superior a los 50.000 euros.

Naturako baliabideen eta ingurumenaren aurkako delituak (Zigor-kodearen 328 artikulua 325, 326, 326 bi, 327 artikuluekin loturik).
Arrisku-jokabidearen adibidea: Homologatuta ez dagoen enpresa bati kontratatzea hondakin eta isuri arriskutsuen kudeaketa, eta horiek ingurumen-kalte bat eragitea.

Delitos contra los recursos naturales y el medio ambiente (artículo 328, en relación con los artículos 325, 326, 326 bis, 327 del Código Penal)
Ejemplo de conducta de riesgo:ontratación a una empresa no homologada para la gestión de los residuos y vertidos peligrosos, y estos causan un determinado daño medioambiental.

Funtzionario-eroskeria (Zigor-kodearen 419, 420, 421, 422, 423, 424, 425, 426, 427 artikuluekin loturik)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Atzerriko agintariak edo funtzionarioak eroskeriaz tratatzea (dirua, ondasunak edo mesedeak eskaini edota emateak haien karguekin loturiko egintza, jarduera edo ebazpen jakin batzuk lortzeko).

Cohecho (art. 427 bis, en relación con los artículos 419, 420, 421, 422, 423, 424, 425, 426, 427 del Código Penal)
Ejemplo de conducta de riesgo:Soborno (ofrecimiento y/o entrega de cualquier clase de cantidades, bienes o favores) a autoridades o personal funcionario con el objeto de obtener de los mismos determinados actos, actuaciones o resoluciones, propias de su cargo.

Eragin-trafikoa (Zigor-kodearen 430 artikulua, 428 eta 429 artikuluekin loturik)
Arrisku-jokabidearen adibidea: Hainbat administraziotako funtzionario edo agintariekiko harremanak erabiltzea haiengan eragiteko, administrazio-ebazpen edo egintza jakin bat lortzeko.

Tráfico de influencias (artículo 430, en relación con los artículos 428 y 429 del Código Penal)
Ejemplo de conducta de riesgo:Utilización de relaciones con funcionarios o autoridades de diversas administraciones para influir en estos y, por esta vía, conseguir una resolución o acto administrativo determinado.

4.1.1. Giza eskubideen alorrean behar adinako ardura-prozedurak aplikatzea; giza eskubideak urratzeko arriskuak prebenitzea, eta, halakorik gertatuz gero, egindako abusu horiek arintzeko, kudeatzeko eta erreparatzeko neurriak hartzea.

4.1.1. Aplicación de procedimientos de diligencia debida en materia de derechos humanos; y la prevención de riesgos de vulneración de derechos humanos y en su caso, medidas para mitigar, gestionar y reparar los posibles abusos cometidos

Metro Bilbaok Nazio Batuen Mundu Ituneko hamar printzipioekin bat egiten du 1998tik. Printzipio horiek, hain zuzen, erakundeak bere egiten dituen borondatezko hainbat konpromisori buruzkoak dira, besteak beste

Metro Bilbao está adherido desde el año 1998 a los 10 Principios del Pacto Mundial de las Naciones Unidas, que hacen referencia a una serie de compromisos voluntarios que adopta la entidad en materia de Derechos Humanos,

giza eskubideak, laneko eskubideak, ingurumena babestea eta ustelkeriaren kontrako borroka.

Derechos Laborales, Protección del Medio Ambiente y la lucha contra la Corrupción.

2007. urteaz geroztik, Metro Bilbaok urtero-urtero kaleratzen du Aurrerabide Agiria, eta enpresak zer aurrerapen izan dituen azaltzen du, esandako hamar printzipio horiei dagokienez.

Metro Bilbao viene elaborando el "Informe de Progreso" anualmente desde el año 2007, donde se reporta el avance de la empresa en relación al cumplimiento de los 10 Principios.

Bestetik, Metro Bilbaok beharrezkoa du enpresa hornitzaile kualifikatu eta espezializatuen lankidetza bere jardunerako, bermatzeko bezeroei zerbitzua baldintza optimoetan eskaintzen zaiela.

Por otro lado, Metro Bilbao, para desarrollar su actividad, necesita la colaboración de empresas proveedoras cualificadas y especializadas, con objeto de garantizar la prestación del servicio a sus clientes, en condiciones óptimas.

4.2. Giza eskubideen urraketa-kasuengatik izandako salaketak

Orain artean, ez da aurkeztu eta identifikatu tankera horretako salaketarik. Era berean, Metro Bilbaok ez du egiten inolako jarduerarik, giza eskubideak urratzeko arriskurik dakarrenik.

4.2. Denuncias por casos de vulneración de derechos humanos

Hasta la fecha no se ha presentado ni identificado ninguna denuncia a este respecto. Asimismo, Metro Bilbao no realiza ninguna actividad que conlleve un riesgo de violación de los derechos humanos.

4.3. Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenak eta xedapenak sustatzea eta betetzea:

4.3. Promoción y cumplimiento de las disposiciones de los convenios fundamentales de la Organización Internacional del Trabajo relacionadas con:

4.3.1. Errespetua die elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiborako eskubideari

Metro Bilbaok sindikatzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidea bermatzen ditu.

4.3.1. El respeto por la libertad de asociación y el derecho a la negociación colectiva

Metro Bilbao garantiza la libertad de sindicación y el derecho a la negociación colectiva.

Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Eskuliburuak zera ezartzen du 6.2.1 atalean, negoziazio kolektiborako eta elkartzeko askatasunerako printzipioak errespetatu behar direla.

En el Manual de Gestión Ética y Socialmente Responsable en su apartado 6.2.1 instauran el respeto a los principios de negociación colectiva y libertad de asociación.

Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Eskuliburuak biltzen duen moduan, Metro Bilbaok konfiantzan eta elkar ulertzean oinarritutako mekanismoak garatzen ditu, eta haiexek arautzen dituzte enpresako

Tal y como se recoge en su Manual de Gestión Ética y Socialmente Responsable, Metro Bilbao define y desarrolla mecanismos basados en la confianza y el entendimiento que regulan las relaciones entre la Dirección de la empresa y la

zuzendaritzaren eta ordezkaritzaren arteko harremanak, negoziazio-, komunikazio- eta partaidetza-prozesuen bidez, baita gatazkak konpontzeko prozesuen bidez ere.

representación de la parte social, a través de procesos de negociación, comunicación, participación y resolución de conflictos.

Metro Bilbaok lan-hitzarmena du indarrean, aurreraeragin-klausula bidez, 2019ko abenduaren 31tik. Hitzarmena berritzeko negoziazioetan sartuta dago orain. Hitzarmen kolektiboa eskura dago enpresaren intranetean.

Metro Bilbao dispone de un convenio colectivo vigente por cláusula de ultraactividad desde el 31 de diciembre de 2019. Se encuentran en curso las negociaciones para un nuevo convenio. El convenio colectivo esta disponible en la Intranet de la empresa.

Halaber, enpresaren intranetetik kontsulta litezke negoziazio-aktak.

Las actas de negociación pueden ser consultadas a través de la intranet de la empresa.

Batzorde Paritarioak langileen lan-hitzarmena interpretatzeko aukera ematen du, baita egoki iritzitako argipenak egitekoa ere.

La Comisión paritaria permite interpretar el convenio colectivo de las y los trabajadores, y realizar las aclaraciones oportunas.

Diziplina-araubideari buruzko auziak Metro Bilbaoren Barne Araudiaren dokumentuan daude jasota.

La normativa sobre régimen disciplinario se refleja en el documento de Normativa Interna de Metro Bilbao.

4.3.2. Diskriminazioa desagerraraztea enpleguan eta okupazioan

4.3.2. La eliminación de la discriminación en el empleo y la ocupación

Metro Bilbaok berdintasun-plan bat dauka, baita hari buruzko diagnostiko bat ere (Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Metro Bilbaoren 2019-2022 aldirako V. Plana).

En Metro Bilbao disponemos de un Plan de Igualdad y de su correspondiente diagnóstico (V Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Metro Bilbao 2019-2022).

Era berean, protokolo espezifiko bat daukagu, lantokian era guztietako jazarpenak prebenitzeko, izan lanarekin lotua, psikologikoa, sexuala edo sexista.

De igual manera, se dispone de un Protocolo específico para la prevención del Acoso laboral, psicológico, sexual o sexista en el trabajo.

Lan Hitzarmenaren II. Eranskinean berdintasun-plana eta lantokiko jazarpen-protokoloa aipatzen dira.

En el Anexo II del Convenio Colectivo hace referencia tanto al plan de igualdad como al protocolo de acoso en el trabajo.

2019an ez da gertatu edo identifikatu inolako diskriminazio-kasurik gure erakundean.

En el año 2019 no se ha producido ni identificado ningún caso de discriminación en la organización.

4.3.3. Ezinbesteko lana edo nahitaezkoa deuseztatzea; haurren lana erabat abolitzea

4.3.3. La eliminación del trabajo forzoso u obligatorio; la abolición efectiva del trabajo infantil

Corporate Compliance programak, eta, haren barruan, Jokabide Kode Etikoak eta Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Eskuliburuak bermatzen dute ez dela izango ez behartutako lanik, ez haurrek egindakorik.

Metro Bilbaok ez dauka inolako zentrorik, langileak behartuta edo haurrak lanean izateko arrisku esanguratsurik duenik.

Egoki iritziz gero, Metro Bilbaok egiaztapen edo ikuskaritza xeheagoak egingo ditu, baita hornitzailearen zentroetan ere, eta neurriak eskatuko dizkie hornitzaileei, nabarmendutako gabeziak konpontzeko.

5. Ustelkeriaren eta eroskeriaren kontrako borroka

5.1. Ustelkeria eta eroskeria saihesteko hartutako neurriak

Metro Bilbaok araudia betetzeko eta delituak prebenitzeko ikuskaritza- eta kontrol-sistema bat garatu eta ezarri du (Corporate Compliance izenekoa), Zigor Kodean aurreikusitako irizpideekin bat.

2017ko azaroaz geroztik, Metro Bilbaok Corporate Compliance sistema dauka ezarrita, zeinak kontrolak ezartzen baititu delituzko ekintzak prebenitzeko, saihesteko eta, gertatuz gero, detektatzeko –haien artean, giza eskubideen urraketak–.

Compliance Officer edo betearazpen-ordezkari bat izendatu da, kontrol-sistema horrek funtzionatzen duela eta betetzen dela berrikusteko arduradun gisa, eta hark kudeatzen du salaketen kanala.

Bada protokolo bat, ustelkeriarekin eta eroskeriarekin lotuta: *Ustelkeriaren kontrako politika eta argibideak*. Protokolo horretan, ustelkeriaren kontrako politikek jarraitu beharreko irizpideak markatzen dira, eta jarraibide argiak eta objektiboak ezartzen; halaber, gertutik behatzeko indar loteslea eta nahitaezkotasuna ere ezartzen ditu.

El programa de Corporate Compliance y dentro de él, el Código Ético de Conducta y el Manual de Gestión Ética y Socialmente Responsable, garantizan no incurrir en trabajo forzoso, ni en trabajo infantil.

Metro Bilbao no dispone de ningún centro con riesgo significativo de ser origen de episodios de trabajo forzoso o infantil.

Si lo considerase oportuno, Metro Bilbao realizará verificaciones o auditorias más intensivas, incluso en los centros del propio proveedor, y procederá a la solicitud de acciones a sus proveedores para solventar las deficiencias detectadas.

5. Lucha contra la corrupción y el soborno

5.1. Medidas adoptadas para prevenir la corrupción y el soborno

Metro Bilbao ha desarrollado e implantado un sistema de supervisión y control de cumplimiento normativo y de prevención de delitos (denominado Corporate Compliance) de acuerdo con lo previsto en el código penal.

En Metro Bilbao, disponemos desde noviembre de 2017, de un sistema de Corporate Compliance que establece controles para prevenir, evitar y en su caso detectar la comisión de actos delictivos, entre ellos, la vulneración de los derechos humanos.

Se ha designado un Compliance Officer responsable de supervisar el funcionamiento y verificar el cumplimiento de este sistema de controles y es quien gestiona el canal de denuncias.

Existe un protocolo referido al tema de la corrupción y el soborno "Política e instrucciones anticorrupción". En este protocolo se marcan las pautas a seguir en materia de política anticorrupción estableciéndose instrucciones claras y objetivas, instaurando asimismo la fuerza vinculante y obligatoriedad de observancia de las mismas.

Corporate Compliance programaren barruan (araudia betetzeko programa), era berean, Ustelkeriaren kontrako Politikari buruzko Txosten bat ere jasotzen da; hantxe zehazten da aplikatzekoa den araudia, eta hantxe deskribatzen dira ustelkeria mota desberdinak.

Obra asimismo dentro del programa de Corporate Compliance (cumplimiento normativo) un Informe de Política Anticorrupción, en el que se determina la normativa de aplicación y se describen los distintos tipos de corrupción existentes.

Gizartearen eskurako eragiketa nagusiak kontratazio-prozedura batek kontrolatuta daude, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak eskatzen duena betez. Corporate Compliance programaren barruan, kanpo-ikuskaritzako txosten bat eskatu zen 2019an, Metro Bilbao esandako lege horretara egokitzen ote zen aztertzeko. Haren emaitza, oro har, aldekoa izan zen.

Las principales operaciones de disposición de la sociedad están controladas por el procedimiento de contratación existente que da cumplimiento a lo requerido por la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público. Dentro del programa de Corporate Compliance, en el año 2019 se ha encargado un informe de auditoría externa sobre la adecuación de Metro Bilbao al cumplimiento de la citada ley, habiéndose librado el mismo con resultado en general satisfactorio.

Halaber, 2019an hainbat prestakuntza-saio egin dira Corporate Compliance programaren alorrean; saio horietan, ustelkeriaren kontrako politikari dagozkion gaiak jorratu dira. Prestakuntza hori Compliance Officerrak eman du aurrez aurre, ia langile guztientzat. Hori hala, arreta berezia ipini zaie goi-mailako erantzukizuna duten lanpostuei, nahiz eta oro har enpresako kide guztietara heldu den prestakuntza hori. Hain justu, Aginte Toki Nagusiko lantaldeari eman zaio 2019an araudia betetzearekin lotutako prestakuntza eta horrela Metro Bilbaoko kolektibo guztietara hedatu da: Era berean, harrera-planaren barruan, prestakuntza-saio bat bildu da, aurrez aurre Compliance Officerrak emana, zeinaren helburua baita bermatzea langile hasiberri guztiek jasotzen dutela Corporate Compliance programaren berri, eta ezagutzen dituztela, era berean, zeinek bere lanpostuan aplikatzekoak diren protokoloak eta prozedurak.

Durante el año 2019 se han realizado diversas sesiones formativas en materia de Corporate Compliance, sesiones en las que se han incluido materias relativas a la política anticorrupción. La formación se ha impartido por parte del Compliance Officer de forma presencial a la práctica totalidad de la plantilla, haciendo especial incidencia en aquellos puestos de máxima responsabilidad pero alcanzando a casi todo el conjunto de los miembros de la empresa. De hecho, en el año 2019 se ha impartido formación en materia de cumplimiento normativo al colectivo del Puesto de Mando Centralizado habiendo llegado ya a todos los colectivos de Metro Bilbao. Asimismo, dentro del plan de acogida, se ha introducido una sesión formativa impartida presencialmente por el Compliance Officer con el objeto de garantizar que todo personal de nuevo ingreso es conocedor del programa de Corporate Compliance y de los protocolos y procedimientos que resultan de aplicación en su puesto de trabajo.

Zuzendaritzako langileei dagokienez, prestakuntza-saio espezifiko bat egin zen programa ezarri zen garaian. Saio hartan, Compliance Oficcerrak ez ezik kanpoko langile espezializatuek ere hartu zuten esku. Era berean, esandako saio hori Administrazio Kontseiluari ere eskaini zitzaion. Horrez gain,

En cuanto al personal directivo, se le realizó en el momento de implantación del programa una sesión formativa específica, en la que no sólo tomó parte el Compliance Officer sino también personal especializado externo. Igualmente, dicha sesión se impartió al Consejo de Administración al que además, en el año 2019

2019ko programaren ikuskaritza-txostenaren berri eman zitzaion Administrazio Kontseiluari.

se le ha reportado el resultado del informe de auditoría del programa correspondiente a dicho año.

Metro Bilbaoko langileek kanal horretara jotzeko eskubide eta betebeharra dute, baldin eta Jokabide Kode Etikoan edonolako ez-betetzeren bat sumatuko balute, edota ikusiko balute ez direla betetzen Corporate Compliance programarekin lotuta aplikatzekoak diren protokoloak edo argibide espezifikoak.

La plantilla de Metro Bilbao no solo tiene el derecho sino la obligación de dirigirse a dicho canal para denunciar cualquier incumplimiento respecto a lo previsto en el Código Ético de conducta o en cualquiera de los protocolos o instrucciones específicas aplicables en materia de Corporate Compliance.

Hala, hirugarren batek prestatutako txosten bat da eskura, programa ezartzearekin lotuta.

Se dispone de un informe elaborado por un tercero relativo a la implantación del programa.

2019an, ez da gertatu edo identifikatu inolako ustelkeria-kasurik erakundean.

En el año 2019 no se ha producido ni identificado ningún caso de corrupción en la organización.

5.2. Kapital-zuriketaren kontra borroka egiteko neurriak

Corporate Compliance proiektuaren barruan, *Enpresa hornitzaileen datuen identifikazioa, alta eta aldaketak kudeatzeko prozedura* bat dago, eta han jasotzen da zer urrats egin, hornitzaileei alta emateko edo haien datuak aldatzeko. Prozedura horren bidez, asmoa da beharrezko mekanismoak ezartzea eta arautzea, tankera horretako delituak egiteko arriskua uxatzeko.

5.2. Medidas para luchar contra el blanqueo de capitales

Dentro del proyecto de Corporate Compliance se dispone de un "Procedimiento de identificación, alta y variación de datos de empresas proveedoras", en el cual se establecen los pasos a seguir a la hora de dar de alta o modificar los datos de los proveedores. Con este procedimiento se pretende implementar y regular los mecanismos necesarios para mitigar el riesgo de comisión de este tipo de delitos.

Hala, prozeduraren helburu nagusia kapital-zuriketa saihestea da, eta aplikatzekoa da Metro Bilbaon egiten diren eragiketa ia guztietan. Prozedura hori enpresan erantzukizuna duten alorrak osatzen dituzten langile guztiei helarazi eta azaldu zaie, haiekin batera koordinatuta.

El procedimiento, que tiene por objeto principalmente evitar el blanqueo de capitales resulta de aplicación a la práctica totalidad de operaciones realizadas en Metro Bilbao. El procedimiento ha sido remitido, explicado y coordinado con todo el personal integrante de las áreas de la empresa con responsabilidad en el mismo.

Era berean, 2019an Compliance Officerrak ikuskaritza bat egin zuen, aztertzeko ea modu efektiboan betetzen ote den esandako protokoloa, eta haren emaitza aurkeztu zaio Administrazio Kontseiluari.

Asimismo, en el año 2019 se ha realizado una auditoría de cumplimiento efectivo del citado protocolo por parte del Compliance Officer, cuyo resultado ha sido presentado al Consejo de Administración.

2019an, ez da gertatu edo identifikatu kapital-zuriketarekin lotutako inolako kasurik

En el año 2019 no se ha producido ni identificado ningún caso de blanqueo de

erakundean.

5.3. Irabazi asmorik gabeko erakundeei eta fundazioei egindako ekarpenak

Metro Bilbaok ez die egiten finantza-ekarpenik eta bestelakorik alderdi politikoei edo haiekin lotutako bestelako erakundeei.

Honako hauek dira 2019an irabazi asmorik gabeko erakundeei egindako ekarpenak:

capitales en la organización.

5.3. Aportaciones a fundaciones y entidades sin ánimo de lucro

Metro Bilbao no realiza aportaciones financieras ni de otro tipo a partidos políticos o instituciones relacionadas.

Las aportaciones realizadas durante el año 2019 a entidades sin ánimo de lucro son las siguientes:

Erakunde hartzailea Entidad destinataria	**Zenbatekoa** Importe
Fair Saturday Fair Saturday	8.264,00 €
Euskampus Fundazioa-Naukas Fundación Euskampus-Naukas	9.500,00 €
Bilbao Mendi Film Festival Bilbao Mendi Film Festival	1.400,00 €
Bilboko Konpartsak Bilboko Konpartsak	1.000,00 €
Munduko Pilota Batzarra Fundazioa Munduko Pilota Batzarra Fundazioa	9.000,00 €
Athletic Emakumezkoena Athletic Femenino.	50,00 €
Cadena 100-Euskadi Cope Cadena Cien-Euskadi Cope	5.000,00 €
Bilbao 700 Fundazioa Fundación Bilbao 700	545,45 €
Arratiako Korua Musika Elkartea Asociación Musical Arratiako Korua	250,00 €
AEK-Korrika AEK-Korrika	1.000,00 €
DYA DYA	300,00 €
Guggenheim Museoa Fundazioa Fundación Museo Guggenheim	77.000,00 €
Bilboko Arte Ederretako Museoa Museo de Bellas Artes de Bilbao	75.000,00 €
Onda Vasca (Eusko Media S.L.) Onda Vasca (Eusko Media S.L.)	9.500,00 €
Fundación Athletic Fundazioa Fundación Athletic Fundazioa	15.000,00 €
Guztira **Total**	**212.809,45 €**

Esku-dirutan (materialak entregatzea / espazio publikoak lagatzea):

En especie (entrega de materiales / cesión de espacios públicos):

Erakunde hartzailea Entidad destinataria	**Zenbatekoa** Importe
Fair Saturday Fair Saturday	2.257,27 €
UPV/EHU-Zientzi Astea UPV/EHU-Semana de la Ciencia	1.405,74 €
Euskampus Fundazioa-Naukas Fundación Euskampus-Naukas	1.465,00 €
WATS (Kiroleko Indarkeriaren aurkako Batzordea) WATS (Asociación contra la violencia en el deporte)	300,00 €
Ortzadar LGBT Ortzadar LGBT	5.350,00 €
Deustuko Zikloturista Taldea Grupo Cicloturista Deusto	749,00 €
Guztira Total	**11.527,01 €**

6. Gizartea

6.1. Kudeaketa-ikuspegia

Politikak eta konpromisoak
Metro Bilbaok hainbat kudeaketa-sistema ditu, zein bere politika, eskuliburu eta jarduera-prozedura zehatzekin. Honako hauexek dira:

- Kalitatea Kudeatzeko Sistema eta Zerbitzuen Karta.
- Ingurumena eta Energia Kudeatzeko Sistema.
- Berotegi Efektuko Gasak Egiaztatzeko Sistema.
- Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Sistema.
- Araudiak betetzeko Corporate Compliance programa.

Informazio guztia berrikuspen-txostenen bidez jasota geratzen da, eta kudeaketa-sistemetako zuzendaritzaren eskura.

Erantzukizunak eta bitartekoak
Metro Bilbaoren zuzendaritzak bere egin zuen enpresan Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Sistema ezartzeko konpromisoa, SGE 21 araua oinarri hartuta, zeinaren muina Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Eskuliburua baita. Eskuliburu

6. Sociedad

6.1. Enfoque de Gestión

Políticas y compromisos
Metro Bilbao cuenta con los siguientes Sistemas de Gestión, los cuales a su vez disponen de una política, manual y procedimientos de actuación correspondientes a cada uno de estos sistemas:

- Sistema de Gestión de Calidad y Carta de servicios.
- Sistema de Gestión Ambiental y Energético
- Sistema de verificación de Gases de efecto invernadero.
- Sistema de Gestión Ética y Socialmente Responsable.
- Programa de cumplimiento normativo Corporate Compliance.

Toda la información queda recogida a través de los informes de revisión para la dirección de los diferentes sistemas de gestión.

Responsabilidades y recursos
La Dirección de Metro Bilbao tomó la decisión de implantar en su empresa un Sistema de Gestión Ética y Socialmente Responsable basado en la Norma SGE 21, cuyo núcleo central es el Manual de Gestión Ética y Socialmente Responsable, elaborado para

hori helburu jakin batekin egina da: Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsua, Jokabide Kode Etikoa eta haiekin lotutako praktika operatiboak betetzen direla sustatzea, alegia.

reforzar el cumplimiento de su Política de Gestión Ética y Socialmente Responsable, su Código Ético de Conducta y las prácticas operativas asociadas a los mismos.

Era berean, Metro Bilbaoren zuzendaritzak, Administrazio Kontseiluak onartutako akordioak garatzeko bidean, Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Sistema eguneratzeko erabakia hartu du, Zigor Kode berriaren eskakizunetara egokitzeko, Corporate Compliance programaren alorrean.

Asimismo, la Dirección de Metro Bilbao, en el desarrollo de los acuerdos adoptados por el Consejo de Administración, ha tomado la decisión de actualizar el Sistema de Gestión Ética y Socialmente Responsable y adaptarlo a las nuevas exigencias del Código Penal en materia de Corporate Compliance.

Eskuliburu hori Metro Bilbaoren Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Sistemaren oinarrizko dokumentua da, eta honako agiri hauek osatzen dute:

El Manual constituye el documento base del Sistema de Gestión Ética y Socialmente Responsable de Metro Bilbao y se completa con los siguientes documentos:

- Hitzarmen kolektiboak.
- Barne-araudiak.
- Enpresaren kudeaketa-sistemekin lotutako prozedurek eta erregistroek.
- Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Politikak.
- Jokabide Kode Etikoak.
- Corporate Compliance programa ezartzearen ondorioz garatzen ari diren protokoloek eta prozedurek.
- SGE 21 arauak (Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Sistema).

- El Convenio colectivo.
- La Normativa interna.
- Los procedimientos y registros asociados a los sistemas de gestión de la empresa.
- La Política de Gestión Ética y Socialmente Responsable.
- El Código Ético de Conducta.
- Los protocolos y procedimientos que se están desarrollando fruto de la implantación del Corporate Compliance.
- La Norma SGE 21 "Sistema de Gestión Ética y Socialmente Responsable".

Metro Bilbaoren zuzendaritzak definitzen du Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Politika, eta haren bidez arautzen dira enpresaren printzipioak, konpromisoak eta balioak, dela etikoak, dela sozialak.

La Dirección de Metro Bilbao define la Política de Gestión Ética y Socialmente Responsable de la empresa, que es el reflejo de los principios, compromisos y valores, de carácter ético y social, que rigen su actividad.

Enpresaren Zuzendaritza Batzordeak sinatzen du Kudeaketa Etikorako Politika, eta Metro Bilbaoren Etika Batzordeak egokiro eguneratzen du aldian-aldian (aldiz, Compliance Corporate programari dagozkion eguneratzeak Compliance Officerraren esku geratuko dira).

La Política de Gestión Ética está firmada por el Comité de Dirección de la empresa y se mantiene correctamente actualizada por el Comité de Ética de Metro Bilbao (salvo de las actualizaciones en materia de Corporate Compliance que irán a cargo de la persona Compliance Officer).

Enpresaren portaera etiko eta sozial ona zaintzeko, Metro Bilbaoren Zuzendaritzak

Con el objetivo de velar por el buen comportamiento ético y social de la empresa, la

enpresako Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Batzordea izendatu du. Honako hauek osatuko dute: Compliance Officerrak, Kontrol Ekonomikoko Buruzagitzak, Prebentzio Zerbitzuko Buruzagitzak, Aholkularitza Juridikoko Buruzagitzak, Giza Kapitaleko Zuzendaritzak, Bulego Teknikoko eta Obretako Buruzagitzak, Marketin eta Komunikazioko Buruzagitzak, eta Prebentzioko teknikariek.

Dirección de Metro Bilbao nombra el Comité de Ética y Responsabilidad Social Corporativa de la empresa, integrado por la persona Compliance Officer, Jefatura de Control Económico, Jefatura de Servicio de Prevención, Jefatura de Asesoría Jurídica, Dirección de Capital Humano, Jefatura de Oficina Técnica y Obras, Jefatura de Marketing y Comunicación y Personal Técnico de Prevención.

Helburuak eta jomugak

Atal honetan, Metro Bilbaoren gizarte-erantzukizunarekin lotutako helburuen eta jomugen ezarpena eta segimendua jasotzen dira, baita segimenduari buruzko adierazleak ere, Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Politikak bere gain hartutako etengabeko hobekuntza-konpromisoak betetzeko.

Objetivos y metas

En este apartado se recoge establecimiento y seguimiento de Objetivos y Metas relacionados con la Responsabilidad Social por parte de Metro Bilbao, así como indicadores de seguimiento, con el fin de cumplir el compromiso de mejora continua asumido en la Política de Gestión Ética y Socialmente Responsable.

Metro Bilbaoren Zuzendaritzak, Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako Batzordeak hala eskatuta, urtero onartzen ditu gizarte-erantzukizunarekin lotutako helburuak eta jomugak, baita haiei dagozkien segimendu-adierazleak ere, zehaztutako plana zer-nola betetzen den ebaluatzeko.

La Dirección de Metro Bilbao, a propuesta del Comité de Responsabilidad Social Corporativa, aprueba con carácter anual los Objetivos y Metas referentes a la Responsabilidad Social, así como los indicadores de seguimiento correspondientes, con el fin de evaluar el cumplimiento del plan definido.

Helburuak ezartzeko, dagokion prozedurarekin bat, honako alderdi hauek hartzen dira kontuan: arrisku eta alderdi sozial esanguratsuak, legezko eskakizunak eta bestelako betebeharrak, eragindako unitateen ikuspegia, ikuskaritzaren emaitzak eta Kudeaketa Etiko eta Sozialki Arduratsurako politika.

Para establecer los objetivos, de acuerdo con el correspondiente procedimiento, se tienen en cuenta los aspectos y riesgos sociales significativos, los requisitos legales y otros requisitos, el punto de vista de las unidades afectadas, los resultados de auditoría y la Política de Gestión Ética y Socialmente Responsable.

Hori hala, segimendua egiteko 20 adierazle dira guztira, zeinak urteko ikuskaritza-txostenean jasotzen baitira, ondoren zuzendaritzara helarazteko.

Se dispone de 20 indicadores de seguimiento que se recogen en el informe de revisión para la dirección de carácter anual

Arriskuak (Hornitzaileak/Bezeroak)

Riesgos (Proveedores/Clientes)

Hornitzaile edo bezero baten ekonomia eta finantzen ezegonkortasunaren lehen zantzuak sumaezinak izan ohi dira, baina ondoriozko arriskuak enpresaren balio-katerako garrantzitsuak eta erabakigarriak

